

**PROCES-VERBAL DU CONSEIL MUNICIPAL**  
**DU JEUDI 2 MARS 2017.**

Le deux mars deux mille dix-sept, à vingt heures, le Conseil Municipal régulièrement convoqué, s'est réuni au nombre prescrit par la loi, sous la présidence de **Monsieur Bruno CARRERE, Maire.**

**Etaient présents :** M. CARRERE *Maire*, Mmes SEMERENA, GALLOIS, MM. GOYHENECHÉ, ROUAULT, DRIEUX *Adjoints*, Mme ORHATEGARAY-SONNET, LAMAISON, LARRONDE, ZUFIAURRE, MOREL, DURAND-RUEDAS, MM. MINVIELLE, IBARBOURE, MACHICOTE, OSPITALETCHE, ROUGET, SERRANO, SARRATIA, DUMON, VINET, URRUTIA, CENDRES *Conseillers municipaux.*

**Etaient excusés :** Mmes CEDARRY, ARISTIZABAL, CASABONNET-MOULIA, DOYHENART, MM. DAGUERRE, SAINT-JEAN.

**\* SECRETAIRE DE SEANCE :** Madame GALLOIS

- \* Madame Cedarry donne procuration à Monsieur Drieux.
- \* Madame Aristizabal donne procuration à Madame Zufiaurre.
- \* Madame Casabonnet-Moulia donne procuration à Madame Orhategaray-Sonnet.
- \* Madame Doyhenart donne procuration à Madame Lamaison.
- \* Monsieur Daguerre donne procuration à Monsieur Ospitaletche.
- \* Monsieur Saint-Jean donne procuration à Monsieur Dumon.

**\* URBANISME**

**1. REVISION GENERALE DU PLAN LOCAL D'URBANISME – ACCORD AVEC LA COMMUNAUTE D'AGGLOMERATION PAYS BASQUE – POURSUITE DE LA PROCEDURE.**

Monsieur Goyheneche présente le rapport suivant,

Par délibération en date du 26 juin 2014, le Conseil Municipal de la Commune de USTARITZ a prescrit la révision du Plan Local d'Urbanisme.

Depuis le 1<sup>er</sup> janvier 2017 et la création par fusion de la Communauté d'agglomération du Pays Basque, cette dernière est compétente en matière de « Plan Local d'Urbanisme, document d'urbanisme en tenant lieu et carte communale ».

L'article L.153-9 du code de l'urbanisme dispose que la Communauté d'Agglomération peut décider d'achever toutes les procédures engagées avant sa création ; la Communauté se substituant de plein droit à la Commune dans tous les actes et délibérations afférents à ces procédures.

Cet article précise que lorsque la procédure a été engagée par une commune, l'accord de cette dernière est requis.

Il est donc demandé au Conseil municipal de la Commune de USTARITZ de donner son accord à la Communauté d'agglomération Pays basque de poursuivre la procédure de la révision du Plan Local d'Urbanisme.

***\* Monsieur Goyheneche : Nous sommes maintenant confrontés à un problème règlementaire suite à la création de***

**2017ko MARTXOAREN 2ko OSTEGUNeko HERRIKO**  
**BILTZARRAREN AKTA.**

**Bi mila hamazazpiko martxoaren bian**, arratseko zortzietan, Herriko biltzarra ohiz gomitatua, bildu da legeak manatu kopuruan, **Bruno CARRERE Jaun Auzapezaren** lehendakaritzapean.

**Hor zirenak :** CARRERE jauna *Auzapeza*, SEMERENA, GALLOIS, andereak, GOYHENECHÉ, ROUAULT, DRIEUX jaunak *Axuantak*, ORHATEGARAY-SONNET, LAMAISON, LARRONDE, ZUFIAURRE, MOREL, DURAND-RUEDAS, Andereak, MINVIELLE, IBARBOURE, MACHICOTE, OSPITALETCHE, ROUGET, SERRANO, SARRATIA, DUMON, VINET, URRUTIA, CENDRES Jaunak *kontseilariak.*

**Barkatuak :** CEDARRY, ARISTIZABAL, CASABONNET-MOULIA, DOYHENART andereak, DAGUERRE, SAINT-JEAN jaunak.

**\* SAIOAREN IDAZKARIA :** GALLOIS Anderea

- \* Cedarry andereak ahalordea Drieux jaunari eman dio.
- \* Aristizabal andereak ahalordea Zufiaurre andeari eman dio.
- \* Casabonnet-Moulia andereak ahalordea Orhategaray-Sonnet andeari eman dio.
- \* Doyhenart andereak ahalordea Lamaison andeari eman dio.
- \* Daguerre jaunak ahalordea Ospitaletche jaunari eman dio.
- \* Saint-Jean jaunak ahalordea Dumon jaunari eman dio.

**\* HIRIGINTZA**

**1. TOKIKO HIRIGINTZA PLANAREN ALDAKETA OROKORRA – EUSKAL ELKARGOAREKIN AKORDIOA – PROZEDURAREKIN JARRAITZEA.**

Goyheneche jaunak honako txosten hau aurkeztu du,

2014ko ekainaren 26ko deliberamendu batez, UZTARITZE Herriaren Biltzarrak Tokiko Hirigintza Plana berrikus zedin agindu zuen.

2017ko urtarrilaren lehenaz geroztik, elkargoek bat egin eta Euskal Elkargoa sortu da eta berak du «Tokiko Hirigintza Planaren, dagokion dokumentuaren eta herriaren maparen» gaineko eskumena».

Hirigintza Kodearen L.153-9 artikulua dio Hirigune Elkargoak erabaki dezakeela bera sortu aitzinetik ziren prozedura guztiak bururatutzat ematea; Elkargoak hartzen baitu bete-betean Herriaren lekua prozedura horiei lotu egintza eta deliberamendu orotan.

Artikulu horrek zehazten du herriaren adostasuna behar dela, baldin eta prozedura herri horrek abiatu bazuen.

Hartara, UZTARITZE Herriaren Biltzarrari galde egiten zaio bere adostasuna erakuts diezaion Euskal Elkargoari, Tokiko Hirigintza Planaren aldaketarako prozedurarekin aitzin jarrai dezan.

***\* Goyheneche jauna : Euskal Hirigunea sortu denetik araudiaren araberako arazo bati aurre egin behar diogu. Uztaritzek bere THParen prozedura segitzeko, baimena galdatu behar du.***

*l'agglomération pays basque. Pour qu'Ustaritz puisse continuer sa procédure de PLU, il faut demander l'autorisation.*

*\* Monsieur Dumon : Nous nous abstenons et ce dans le droit fil de la délibération de décembre 2016. Nous agissons toutefois que depuis le 1<sup>er</sup> janvier 2017, l'EPCI Pays Basque est devenu une réalité. Pour les prochaines délibérations nous allons aménager nos décisions. Je suggère que dès le début nous affirmions les soucis et l'intérêt de préserver une urbanisation maîtrisée à Ustaritz. Y a-t-il un regroupement communal intermédiaire pour un PLU par secteur ? Si cet échelon intermédiaire existait, il nous semble souhaitable pour nous.*

*\* Monsieur Carrère : La loi a été changée pour que puisse exister des PLU territoriaux. Mais les modalités n'ont pas encore été confirmées. Il semble pertinent qu'à l'échelle du Pays Basque il existe des PLU par territoire.*

*\* Monsieur Dumon : Il semble aussi que pour ce qui concerne les logements locatifs sociaux, cela puisse être mieux réparti sur l'ensemble du territoire basque.*

*\* Monsieur Goyheneche : Des villes vont être nouvellement concernées par les questions de logement social comme Cambo et Hasparren. Cet impact sera un avantage pour Ustaritz. Nous étions un peu seul à Errobi sur cette question. Les autres communes n'étaient pas mobilisées. Aujourd'hui on peut penser qu'elles seront plus à l'écoute.*

*\* Monsieur Dumon : Sachant que cette question du logement social a une incidence financière lourde, cela permettra de rebattre les cartes.*

*\* Monsieur Cendres : Je m'abstiendrai car je suis contre tout cela. Il y a un danger pour notre PLU. Je regrette que le PLU ne soit pas encore opérationnel et que nous ralongions les délais. Cela fait plus de 3 ans que la procédure est engagée alors que ceci aurait pu être fait en deux ans. Le PLU est un outil essentiel, nos délais sont plus longs que la normale.*

*\* Monsieur Carrère : Le PLU est engageant sur le long terme, et il est essentiel de travailler ce sujet au mieux. Les 2 mois perdus par la transition administrative ne sont pas impactants.*

*\* Monsieur Goyheneche : La démarche continue. On aurait été dans l'obligation de faire un PLU intercommunal à Errobi si l'agglomération n'avait été créée et sur ce périmètre nous étions seul en loi SRU. Nous aurions là aussi dans ce contexte perdu la main et c'était une crainte.*

*\* Monsieur Cendres : Oui, mais sur ce nouveau territoire nous n'avons pas autant de poids.*

*\* Monsieur Ibarboure : C'est se donner une chance de maîtriser notre PLU. Tu t'abstiendras sur une chance qui nous est donnée de maîtriser notre avenir.*

*\* Monsieur Cendres : J'étais contre l'EPCI, après cette phase concernant le PLU ce sera fini pour nous.*

*\* Dumon jauna : Abstenituko gira 2016ko abenduko deliberoaren harira. Kontuan hartzen dugu halere, 2017ko urtarillaren 1etik aitzina, Euskal Hirigunea egiaztatu dela. Datorren deliberoentzat, gure erabakiak egokituko ditugu. Proposatzen dut hastapenetik Uzraritzen ditugun arrangurak eta hirigintza menperatu baten aldekoatasuna azkarki adierarazi behar ditugula. Ba ote da arteko herrien bateratze bat THP batentzat sektoreka ? Iduritzen zaigu arteko maila bat izatea egokia litzatekeela.*

*\* Carrere jauna : Legea aldatua izan da lurraldeko THPak izan daitezten. Baina moldeak ez dira oraindik baieztatutako izan. Euskal herri mailan THPak balire lurraldeka egokia litzateke.*

*\* Dumon jauna : Iduri luke ere alokatzen diren etxebizitza sozialei dagokionez, Euskal lurraldean hobeki banatuak izanen direla.*

*\* Goyheneche jauna : Etxebizitza sozialen gaiak Kanbo eta Hazparne bezalako herriak hunkituko ditu. Ukanen duen eragina Uztaritzerentzat abantaila bat izanen da. Errobin gai horrekin hunkitzen zuen herri bakarra bait ginen. Beste herriak ez ziren mobilizatuak. Gaur egun pentsatzen ahal dugu hobeki entzunak izanen girela.*

*\* Dumon jauna : Jakinik bizitza sozialen gai horrek eragin handia duela diru mailan, horri esker kartak berriz nahasiko dira.*

*\* Cendres jauna : Abstenituko naiz zeren horien denen kontra bainaiz. Gure THP lanjerrean da. Damu hartzen dut gure THPa ez baita baliagarri eta epeak luzatzen baititugu. Badu hiru urte baino gehiago prozedura abiatua dela eta hori bi urtez egiten ahal zen. THP behar den tresna bat da, gure epeak usaian baino luzeagoak dira.*

*\* Carrere jauna : Epe luzerako engaiatzen du THPak eta garrantzitsua da gaia ongi lantzea. Trantsizio administratiboarengatik galdu bi hilabeteak ez dute eraginik.*

*\* Goyheneche jauna : Desmartzak segitzen du. Elkargo hirigunea ez balitz egin Errobin lurraldeko THP bat egin beharko genuen eta eremu horretan bakarrak ginen SRU legearen pean. Testuinguru horretan ere eskua galduko genuen eta beldur bat zen.*

*\* Cendres jauna : Bai, baina lurralde berri horretan ez dugu pizu bera.*

*\* Ibarboure jauna : Aukera bat da gure THParen menperatzeko. Abstenituko zira gure etorkizunaren menperatzeko aukera emana zaukularik.*

*\* Cendres jauna : HELEParen kontra nintzan, THPri dagokien fase hau pasatu eta guretako bukatua da.*

*\* Carrere jauna : Ez da koherentziarik gabekoa lurralde THP baten ukaitea Jatsurekin, Larresororekin etab... Ez dugu orain*

*\* Monsieur Carrère : Ce n'est pas incohérent d'avoir un PLU territorial avec Jatxou, Larressore etc... On ne peut pas maintenant affirmer que nous sommes contre cette logique.*

*\* Monsieur Goyheneche : On est déjà habitué à travailler sur une échelle plus grande, par exemple avec le SCOT. Un Maire ne fait pas ce qu'il veut avec le PLU.*

*\* Monsieur Cendres : Je rappelle que le SCOT insiste sur la nécessaire densification or le SCOT avait donné un avis favorable à l'opération Musugorrikoborda.*

Le Conseil Municipal,

Vu le code général des collectivités territoriales ;  
Vu le code de l'urbanisme et notamment son article L153-9 ;  
Vu l'arrêté préfectoral n°64-2016-07-13-011, en date du 13 juillet 2016, portant création de la Communauté d'agglomération du Pays Basque, fixant notamment ses compétences ;

Vu la délibération du Conseil Municipal de USTARITZ en vue de la révision du Plan Local d'Urbanisme, en date du 26 juin 2014 ;

- **DONNE** son accord à ce que la Communauté d'Agglomération Pays Basque poursuive la procédure de révision du Plan Local d'Urbanisme, engagée par la commune avant le transfert de compétence ;

- **PRECISE** que cette procédure sera menée en concertation avec les élus communaux d'Ustaritz et le cabinet d'urbanisme AXESITE ;

- **SOLLICITE** la Communauté d'Agglomération Pays Basque pour mener à son terme la procédure de révision générale du Plan local d'urbanisme d'Ustaritz.

<b>VOTES :</b>	POUR	22
	CONTRE	0
	ABSTENTIONS	7 (Saint-Jean, Morel, Dumon, Durand-Ruedas, Vinet, Urrutia, Cendres)

## **2. ACQUISITION DES TERRAINS PROPRIETE DE L'ETAT - SITE ERREPIRAGARAIA – MODIFICATION DU PRIX.**

Monsieur Goyheneche présente le rapport suivant,

Par délibération du Conseil Municipal en date du 26 novembre 2015, un avis favorable était formulé pour l'acquisition à l'euro symbolique par la commune d'USTARITZ des terrains propriétés de l'Etat intégrés au site de l'ancienne gravière DUHALDE lieu – dit ERREPIRAGARAIA : ZI 118-124-125-126-135-136-140 pour une superficie totale de 50.931 m<sup>2</sup>.

Le Ministère de l'écologie par arrêté en date du 4 février 2016 avait déclassé ces parcelles qui sont déclarées inutiles au besoin de la gestion du domaine public fluvial et les a remises à France Domaine.

France Domaine le 13 novembre 2015 avait estimé ces terrains à 0.15 € / m<sup>2</sup> soit 7.639,65 € pour cette surface; ce service

erraten ahal kontra girenik.

*\* Goyheneche jauna : Jadanik usatuak gira eskala handiago batean lan egitea, adibidez SCOT-ari dagokionez. Auzapez batek ez du nahi duena egiten THParekin.*

*\* Cendres jauna : Oroitarazten dut SCOTak trinkotzen jarraitzen duela alta SCOTak iritzi baikorra emana zuela Musugorrikobordako operazioari.*

Herri Biltzarrak,

Ikusirik Lurralde Kolektibitateen Kode Nagusia;  
Ikusirik Hirigintza Kodea eta, bereziki, L153-9 artikulua;  
Ikusirik prefetaren 64-2016-07-13-011 agindua, 2016ko uztailaren 13koa, Euskal Hirigune Elkargoa sortzekoa eta haren eskumenak zehazten dituen;  
Ikusirik UZTARITZE Herriaren Biltzarrak Tokiko Hirigintza Plana aldatzeko 2014ko ekainaren 26an eman delibramendua;

- **ADOS AGERTU DA** Herriak abiatua zuen Tokiko Hirigintza Planaren aldatze prozedurarekin Euskal Elkargoak jarrai dezan ;  
- **ZEHATZU DU** Uztaritzeko hautetsien eta AXESITE hirigintza bulegoaren arteko hitzartzean eramana izan dela prozedura hau ;

- **DEI EGIN DIO** Euskal Elkargoari Uztaritzeko Tokiko Hirigintza Plana orokorrean berrikusteko prozedura burura dezan.

<b>BOZKAK :</b>	ALDE	22
	KONTRA	0
	ABSTENTZIOAK	7 (Saint-Jean, Morel, Dumon, Durand-Ruedas, Vinet, Urrutia, Cendres)

## **2. ESTATUARENAK DIREN LURSAILAK EROSTEA - ERREPIRAGARAIA GUNEA – PREZIOAREN ALDATZEA.**

Goyheneche jaunak honako txosten hau aurkeztu du,

Herri Biltzarraren 2015eko azaroaren 26ko delibramendu batek aldeko iritzia eman zuen UZTARITZEko Herriak euro sinboliko batez eros zitzaizkien ESTATUARENAK ziren eta lehen DUHALDE harri xehetegia zenaren gunean, ERREPIRAGARAIA lekuan, diren lur hauek: ZI 118-124-125-126-135-136-140. Zabalera, orotara: 50.931 m<sup>2</sup>.

Ekologia ministroak, 2016ko otsailaren 4ko erabaki batez, sailkaturik ziren lursail horiek sailkapenetik kendu ditu eta, ibaietako herri jabegoaren kudeaketarako beharrezkoak ez direla adierazi ondoren, France Domaine-n esku utzi ditu.

France Domaine-k, 2015eko azaroaren 13an, honenbesteko balioa eman dizkie lur horiei: 0.15 € / m<sup>2</sup>, hau da, 7.639,65 €; zerbitzu hori prezio horretan saltzeko prest da.

2016ko martxoaren 31ko delibramendu baten bidez erosketa hori onartzen zuen 7 639,65 €tan.

Aitzineko erosketa osatzeko, UZTARITZEko Herriak, Herri

consentait à cette vente au prix estimé de 7.639,65 €.

Le Conseil Municipal par délibération du 31 mars 2016 approuvait cette acquisition au prix de 7 639 ,65 €.

Pour compléter l'acquisition précédente, par délibération du Conseil Municipal en date du 29 septembre 2016, un avis favorable était formulé pour l'acquisition par la commune d'USTARITZ du terrain propriété de l'Etat intégré au site de l'ancienne gravière DUHALDE lieu – dit ERREPIRAGARAIA : ZI 139 pour une superficie totale de 70 m<sup>2</sup> au prix de 10.50 €

Le Ministère de l'écologie par arrêté en date du 28 juillet 2016 a déclassé cette parcelle qui est déclarée inutile au besoin de la gestion du domaine public fluvial et l'a remise à France Domaine.

La Direction Départementale des Finances faisait parvenir en date du 13 février 2017 une nouvelle déclaration d'intention d'aliéner pour l'ensemble des parcelles ZI 118-124-125-126-135-136-139-140 d'une surface totale de 51 001 m<sup>2</sup> au prix de 7 650 € ; ce prix diffère de l'addition des prix des deux délibérations suscitées qui était de 7 650.15 €.

Il convient donc de confirmer ce nouveau prix de 7 650 € pour l'acquisition des parcelles ZI 118-124-125-126-135-136-139-140 surface totale 51 001 m<sup>2</sup>.

Le Conseil Municipal à l'unanimité,

- **RAPPORTE** la délibération du 31 mars 2016 ;
- **AUTORISE** l'acquisition au prix de 7 650 € des parcelles ZI 118-124-125-126-135-136- 139 -140 propriété de l'Etat surface totale 51 001 m<sup>2</sup> ;
- **AUTORISE** le Maire à signer tout acte afférent à cet accord.

### **3. VENTE D'UN LOTS A BATIR – SECTEUR BERETERRENBORDA – CHOIX DES ACQUEREURS.**

Madame Lamaison présente le rapport suivant,

Par délibération du Conseil Municipal en date du 29 septembre 2016 il était décidé de proposer à la vente 9 lots à bâtir secteurs Elizagaraikoborda (4 lots), Arruntza gaina (4 lots) et Bereterrenborda (1 lot) ; les conditions de ces ventes étaient par ailleurs arrêtées.

La commission communale chargée d'examiner les candidatures s'est réunie le 3 janvier 2017 et a proposé à l'unanimité d'attribuer les lots.

Par délibération du Conseil Municipal en date du 26 janvier 2017 sept acquéreurs ont été retenus et deux lots sont restés disponibles ; des désistements sont intervenus depuis cette date.

Il vous est proposé maintenant de retenir les candidats pour l'acquisition d'un lot secteur BERETERRENBORDA : consorts URGORRY – DARRITCHON ; ces derniers s'étaient engagés à acquérir un lot secteur ELIZAGARAIKOBORDA et se sont depuis désistés.

Biltzarraren 2016ko irailaren 29ko deliberamendu baten bidez, Estatuarena zen eta lehen DUHALDE harri xehetegia zenaren gunean, ERREPIRAGARAIA lekuan, den lur hau : ZI 139, zabalera orotara 70m<sup>2</sup>, 10,50 €tan eros dezan alde agertu zen.

Ekologia ministroak, 2016ko uztailaren 28ko erabaki batez, sailkatu zen lursail hori sailkapenetik kendu du eta, ibaietako herri jabegoaren kudeaketarako beharrezkoak ez dela adierazi ondoren, France Domaine-n esku utzi du.

Departamenduko finantzeta zuzendaritzak, 2017ko otsailaren 13an besterentze xede deklarapen bat helarazten zuen, ZI 118-124-125-126-135-136-139-140, zabalera orotara 51 001 m<sup>2</sup> lurrentzat 7650 €ko prezioan ; prezio hau 7 650,15 €koa zen aitzineko bi deliberamenduei begira.

Prezio berri hau, 7 650€koa, baieztatu behar da ZI 118-124-125-126-135-136-139-140 lursailak, 51 001 m<sup>2</sup> dituen eremuarentzat.

Herri Biltzarrak aho batez,

- **EZEZTATZEN DU** 2016ko martxoaren 31ko deliberoa ;
- **BAIMENA EMAN DIO** 7 650 €ren truke erostea ZI 118-124-125-126-135-136-139 -140 lursailak, 51 001 m<sup>2</sup> dituen eremua ;
- **BAIMENA EMAN DIO** auzapezari, akordio horri loturik den agiri oro sina dezan.

### **3. ERAIKITZEKO MULTZO BATEN SALTZEA – BERETERRENBORDA SEKTOREA – EROSLEEN HAUTAKETA.**

Lamaison andreak honako txosten hau aurkeztu du,

Herri Biltzarraren 2016ko irailaren 29ko deliberamendu batez, eraikitze 9 multzo saltzera ematea erabaki zen, honako sektore hauetan: Elizagaraikoborda (4 multzo), Arruntza gaina (4 multzo) eta Bereterrenborda (multzo 1); salmenta horien baldintzak erabaki ziren ere.

Hautagaiak aztertzeko arduraz zuten batzordea 2017ko urtarrilaren 3an bildu zen; aho batez, multzoak ematea proposatu zuen.

Herri Biltzarraren 2017ko urtarrilaren 26ko deliberamendu batez, zazpi erosle hautatu ziren eta bi multzo geratu ziren libre; harrezkero, gibelera egiteak gertatu dira.

Orain, BERETERRENBORDA sektoreko multzo bat erosteko hautagaia, hau da, URGORRY – DARRITCHON senar-emaztea, onartzea proposatzen zaizue ; hauek ELIZAGARAIKOBORDA sektorean lur zati baten erostera engaiatu ziren eta geroztik gibelerat egin dute.

Proposatzen da hautagaiei, agiria notario aitzinean sinatu aitzinetik, eraikitze baimen baterako eskaria egin dezaten baimentzea.

Il est proposé que ces candidats soient autorisés à déposer un permis de construire avant la signature de l'acte par devant notaire.

**\* Monsieur Vinet : Le couple qui achète avait d'abord choisi un lot à Elizagarraikoborda, pourquoi a-t-il changé d'avis ?**

**\* Madame Lamaison : Ils avaient imaginé une maison importante avec une emprise au sol qui n'était pas possible à cause de l'assainissement autonome.**

**\* Monsieur Vinet : Qu'en est-il au niveau du syndicat URA, peut-être y a-t-il d'autres méthodes au niveau du traitement des eaux usées notamment les micro-stations.**

**\* Madame Lamaison : C'est URA qui a défini le lieu d'assainissement.**

**\* Monsieur Rouget : On doit obligatoirement infiltrer les eaux et ne pas créer de rejet dans le fossé. C'est le règlement existant dans les pyrénées-atlantiques. Par contre c'est autorisé dans les landes. Les micro-stations peuvent aussi être mises en place mais il faut quand même infiltrer les eaux derrière.**

**\* Monsieur Vinet : Il n'était pas simple d'implanter une maison sur ce lot, car en plus il faut s'éloigner des limites du terrain.**

**\* Monsieur Rouget : Et ils avaient peut-être le projet d'une trop grande maison par rapport à ce lot.**

**\* Monsieur Cendres : Y a-t-il d'autres demandes en instance ?**

**\* Madame Lamaison : Deux terrains sont encore libres.**

Le Conseil Municipal,

Vu la délibération du 29 septembre 2016 fixant le prix du lot proposé à la vente à 105 379 € ;

Vu l'avis de l'administration fiscale du 22 juin 2016 ;

- **APPROUVE** la vente du lot à bâtir secteur BERETERRENBORDA aux acquéreurs suivants : Consorts URGORRY – DARRITCHON ;
- **AUTORISE** les acquéreurs déposer leur demande de permis de construire avant la signature de l'acte notarié ;
- **AUTORISE** le Maire à engager l'instruction des différentes procédures d'urbanisme et de travaux nécessaires à ces ventes ;
- **AUTORISE** le Maire à signer tout acte afférent à cette décision.

**VOTES :**

POUR	28
CONTRE	0
ABSTENTIONS	1 (Machicote)

#### **4. DEPOT D'UN PERMIS DE CONSTRUIRE– CREATION D'UN TIERS LIEU A LA GARE.**

Monsieur Goyheneche présente le rapport suivant,

**\* Vinet jauna : Bikote erosleak, lehenik Elizagarraikobordan hautatua zuen lur zati bat, zergatik iritiz aldatu da ?**

**\* Lamaison anderea : Etxe handi baten eraikitzea igurikatzen zuten baina ez zen posible ur sanotze sistema autonomoarengatik.**

**\* Vinet jauna : Zer diote URA sindikatukoek, behar bada beste metodoak badira ur zikinen garbitzeko, bereziki mikro araztegiak.**

**\* Lamaison anderea : URAk du ur sanotze moldea definitu.**

**\* Rouget jauna : Nahi ala ez urak sartu behar ditugu eta ez arrolara ixuri. Hori da Pirineo Atlantikoetan den araudia. Aldiz Landes-etan onartua da. Kasu arras berezietan ezarriak dira mikro araztegiak baina ala ere gibelean urak sartu behar dira.**

**\* Vinet jauna : Ez zen errex etxe bat kokatzea lur zati horretan, zeren gainera eremuaren mugetatik urrundu behar da.**

**\* Rouget jauna : Lur zatiari begira, behar bada etxe handiegri baten proiektua zuten.**

**\* Cendres jauna : Ba ote da beste eskaerarik beha dagonik ?**

**\* Lamaison anderea : Bi eremu oraino hutsak dira.**

Herri Biltzarrak,

Ikusirik, 2016ko irailaren 29ko deliberamendua, non salgai zen multzoaren prezioa 105 379 €tan finkatua baitzen ;  
Ikusirik, 2016ko ekainaren 22ko zerga administrazioaren iritzia ;

- **ONARTU DU** BERETERRENBORDA sektoreko eraikitzeko multzoa honako hauei saltzea: URGORRY – DARRITCHON senar-emazteari ;
- **BAIMENA EMAN DIE** erosleei, notario agiria sinatu baino lehen eraikitze baimena eska dezaten ;
- **BAIMENA EMAN DIO** auzapezari, salmenta horietarako behar diren hirigintzazko eta lanetarako prozedurak abia ditzan ;
- **BAIMENA EMAN DIO** auzapezari, erabaki horri lotu agiri oro sina dezan.

**BOZKAK :**

ALDE	28
KONTRA	0
ABSTENTZIOAK	1 (Machicote)

#### **4. ERAIKITZE BAIMENAREN ESKARIA EGITEA – GELTOKIAN HIRUGARREN LEKU BAT SORTZEA.**

Goyheneche jaunak honako txosten hau aurkeztu du,

Geltokiaren eraikineko lehen solairuan hirugarren leku bat (elkarlanerako txokoa) sortzeko proiektua onartua izan da; ERROBI herri elkargoak diruztatuko du (Laguntza funtsa), bai eta Departamenduak ere (Lurralde Kontratua).

Eliane MENDIBOURE arkitektoak asmatu du antolamendua;

Le projet de création d'un tiers (espace de coworking) à l'étage du bâtiment de la gare a été retenu pour un financement de la communauté de communes ERROBI (fonds de concours).

Eliane MENDIBOURE architecte a conçu son aménagement ; la CCI de Bayonne - Pays Basque et l'Agence pour le Développement du numérique en Pays Basque (ANTIC) ont été rencontrés.

L'agent communal en charges des Technologies de l'Information et de la Communication a par ailleurs visité divers lieux similaires en fonctionnement sur l'agglomération de Bayonne.

Cet espace proposera un accès numérique à tous types de professionnels avec une flexibilité et une accessibilité de l'offre et des locaux.

L'implication concrète des coworkers dans la conception, la gestion et l'animation de la vie quotidienne du tiers-lieu sera organisée. Cette mobilisation contribuera à la construction d'un modèle économique et social durable.

Un règlement comportant une tarification sera ultérieurement adopté par le Conseil Municipal.

Il s'agit aujourd'hui d'autoriser le dépôt du permis de construire pour que ces locaux puissent être livrés à la rentrée 2017.

*\* Monsieur Dumon : Pour préparer cette question, nous n'avons pas pris de décision au niveau de notre groupe. Le coût global de cette opération a-t-il été estimé ? Une étude de faisabilité a-t-elle été réalisée car on peut supposer que les communes voisines ont le même projet.*

*\* Monsieur Drieux : Le coût serait de 261 202 €.*

*\* Monsieur Carrère : Nous étudions la question sur un marché difficile. Sur Ustaritz, il existe beaucoup d'indépendants qui recherchent des locaux, c'est un modèle qui plaît et tous les lieux similaires du BAB marchent bien. De plus le bouchon pour aller à Bayonne est de plus en plus un repoussoir. Cet outil pourra concerner des relocalisations d'activités. Plusieurs modes de fonctionnement existent pour ces espaces de coworking. Une société privée a créé un tiers lieu à Xopolo, mais c'est sur un modèle très packagé qui prend en compte l'hébergement de l'entreprise, du conseil mais en contrepartie le tarif est élevé. Nous partirions sur un modèle souple. On s'est rapproché de la CCI et de l'ANTIC et faisons en sorte que ce projet soit opératif en 2018. Les avis de la CCI et de l'ANTIC ont été rassurants.*

*\* Monsieur Goyheneche : La CCI a visité le bâtiment, c'est un endroit privilégié qui permet un accès sur Bayonne si la ligne de train est rendue plus performante. Peut-être aussi qu'une connexion sera possible avec le train du souffre.*

*\* Monsieur Carrère : Le lieu est très original et cela plaît.*

*\* Monsieur Goyheneche : Ce point était présenté en commission d'urbanisme.*

*\* Monsieur Cendres : Dispose-t-on de demande officielle pour occuper ce lieu ?*

*\* Monsieur Carrère : Nous n'avons pas encore fait de publicité,*

Baiona – Euskal Herriko Merkataritza eta Industria Ganbararekin eta Numerikoaren garapenerako Agentziaren (ANTIC) Euskal Herriko ordezkariarekin izan gara.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien ardura duen udal langileak Baionako Hirigunean jadanik badabilzan antzeko leku batzuk bisitatu ditu.

Leku horrek profesional mota orori eskainiko die digitalerako bidea eta eskaintza malgu eta eskuraeraza izanen da, hala nola lokalak berak ere.

Elkarlangileek hirugarren leku horren egunerokoa asmatzen, kudeatzen eta animatzen nola parte hartuko duten antolatuko da. Horrek ekonomia eredu iraunkorra eraikitzen lagunduko du. Gerora, Herri Biltzarrak, tarifak zehaztuko dituen araudia erabakiko du.

Gaur, eraikitze baimenerako eskaria egitea baimen dezagun, lokalak 2017ko sartzarako prest izan daitezten.

*\* Dumon jauna : Galdera honen prestatzeko, gure taldean ez dugu erabakirik hartu. Operazio honen kostu osoa estimatua izan ote da ? Egingarri den ikerketa bat eginga izan ote da zeren pentsatzen ahal dugu auzo herriek ere ber proiektua dutela.*

*\* Drieux jauna : 261 202 € kostua luke*

*\* Carrere jauna : Merkatu zail batean den galdera aztertzen dugu. Uztaritzen, beregain ari diren anitzek tokiak bilatzen dituzte, gustatzen den eredia da eta BABen diren antzeko toki guzietan arrakasta badute. Gainera Baionara joateko diren autometatzeek traba bat sortzen dute. Tresna honi esker jarduerak berriz lokalizatu daitezke. Funtzionamendu molde andana bat bada elkarlanerako txoko horientzat. Sozietate pribatu batek sortu du elkarlanerako txoko bat Xopolon, baina kontutan hartzen du enpresaren aterpetzea, aholkatzea eta ordain gisa alokatze prezioa goragoa da. Eredu malgu bati buruz joan gitezke. CCI eta ANTIC egiturei hurbildu gira eta ahal duguna egiten dugu proiektu hau abian ezartzeko 2018an. CCIa eta ANTICen iritzia lasaigarriak izan dira.*

*\* Goyheneche jauna : CCIa eraikina bisitatu du, tren ibilbidea hobetua balin bada, Baionara joateko toki egokia da. Beharbada ere, lotura bat egiten ahalko da sofreako trenarekin.*

*\* Carrere jauna : Tokia biziki berezia da eta hori jendei gustutzen zaie.*

*\* Goyheneche jauna : Hirigintza batzordean aurkeztua zen puntu hau.*

*\* Cendres jauna : Toki horren okupatzeko, galdera ofizialik ba ote dugu ?*

*\* Carrere jauna : Ez dugu orain arte iragarkirik egin, beraz ez dugu galderarik.*

*\* Vinet jauna : Elkarlanerako txokoa biziki ongi dela atzematen dut. Errobirekin hitzartu zirezte ?*

*\* Carrere jauna : Bai, ikusiak ditugu. Errobik bazuen antzeko*

*donc nous ne sommes pas en possession de demande.*

*\* Monsieur Vinet : Je trouve que l'espace de travail partagé c'est très bien. Est-ce que c'est concerté avec Errobi ?*

*\* Monsieur Carrère : Oui, on les a vus. Errobi avait un projet similaire et ils se feront en pleine concertation.*

*\* Monsieur Dumon : Pourquoi un permis de construire pour un bâtiment qui existe déjà ?*

*\* Monsieur Rouget : Il y a des modifications importantes notamment la création d'un ascenseur.*

*\* Monsieur Goyheneche : Il sera effectivement réalisé sur le côté du bâtiment à la place des toilettes publiques.*

*\* Monsieur Vinet : Il y a aussi un niveau 2, est-ce que l'ascenseur desservira ce niveau ?*

*\* Monsieur Carrère : C'est plutôt des combles, mais on garde cette situation en réserve.*

Le Conseil Municipal à l'unanimité,

- **AUTORISE** le dépôt d'un permis de construire pour la création d'un tiers lieu à l'étage de la gare ;
- **AUTORISE** le Maire à signer tout document afférent à ce projet.

#### **\* TRAVAUX - ACCESSIBILITE - VOIRIE**

#### **5. CONVENTION CADRE AVEC NUMERICABLE - ENFOUISSEMENT DES RESEAUX FIBRE.**

Monsieur Goyheneche présente le rapport suivant,

La société NUMERICABLE, dont le siège social est situé 10, rue Albert Einstein à Champs-Sur-Marne (77420) est propriétaire du réseau de télévision par câble à Ustaritz ; cette situation a été confirmée par délibération du conseil le municipal en date du 09 mars 2006.

TDF propriétaire précédent de ce réseau avait organisé sa relation avec notre commune au moyen d'une convention qui fixait l'engagement de chaque partie ; un accord similaire n'existait pas avec NUMERICABLE ; il vous est proposé d'adopter une convention avec NUMERICABLE qui concernera la pose coordonnée des différents réseaux, et notamment les réseaux électriques et de communications électroniques pour favoriser la réduction du coût des travaux et réduire la gêne provoquée par des chantiers successifs.

Il en est de même pour la dissimulation des réseaux aériens inesthétiques.

Les réseaux aériens de communications électroniques et les réseaux publics aériens de distribution d'électricité étant fréquemment voisins, il est souhaitable que leur dissimulation dans un même secteur soit coordonnée.

*egitasmo bat eta hitzarturik eginen dira.*

*\* Dumon jauna : Zergatik eraikuntza baimena behar da eraikia den eraikuntza batentzat ?*

*\* Rouget jauna : Aldaketa garrantzitsuak badira bereziki igogailu baten sortzea.*

*\* Goyheneche jauna : Eraikinaren aldean egina izanen da komuna publikoen ordez.*

*\* Vinet jauna : Bigarren solairu bat bada ere, igogailua igoko da hararaino ?*

*\* Carrere jauna : Teilatupea da gehiago, baina egoera hori bazterrean atxikitzen dugu.*

Herri Biltzarrak aho batez,

- **BAIMENA EMAN DU** geltokiaren lehen solairuan, hirugarren leku bat sortzeko eraikitze baimena eska dezaten;
- **BAIMENA EMAN DIO** auzpezari, proiektu horri lotu dokumentu oro sina dezan.

#### **\* OBRAK – SARTZEKO ERRAZBIDE – BIDEAK**

#### **5. OINARRI HITZARMENA NUMERICABLE-REKIN - ZUNTZ SAREAK LURPERATZEA.**

Goyheneche jaunak honako txosten hau aurkeztu du,

NUMERICABLE sozietatea, egoitza Champs-Sur-Marne-ko Albert Einstein karrikako 10ean duena (77420), Uztaritzeko kable bidezko telebista sarearen jabea da; hala egiaztatu du Xxko herri biltzarraren deliberamendu batek.

TDF zen lehen sare horren jabea, eta herriarekiko harremana eta alde bakoitzaren engaiamendua hitzarmen baten bidez finkaturik ziren; NUMERICABLE-rekin ez zen halako hitzarmenik; orain proposatzen zaizue NUMERICABLE-rekiko hitzarmen bat erabaki dezagun, sareak modu koordinatuan hedatzeko, bereziki argindar eta komunikazio elektronikoetakoak, lanen gastua apaltzeko eta hainbat lan bat bestearen ondoren jasan ez ditzagun.

Bergauza itsusi egiten duten aireko sareak gordetzeari dagokionean. Komunikazio elektronikoetarako sareak eta argindarra banatzeko aireko sareak elkarren ondoan izan ohi dira eta koordinatu behar da biak sektore berera gordetzea.

Sare horiek euskarri beretan direnean, koordinatze hori Lurraldeko Kolektibitateen Kode Nagusiaren L.2224-35 artikulua agintzen duenari jarraiki egin behar da.

Komunikazio elektronikoetarako sareak gure lurraldean garatzeak garrantzi handia du gure herriarentzat, eta sareak hedatu eta berritzea karga zaio NUMERICABLE-ri.

Gastuak murrizten laguntzeko, ardurak argiki banatu behar dira; lanen gidaritza KOLEKTIBITATEAK darama herri lanetako

Lorsque de plus ces réseaux sont disposés sur les mêmes supports, cette coordination est soumise aux dispositions de l'article L.2224-35 du Code Général des Collectivités Territoriales.

Le développement des réseaux de communications électroniques sur notre territoire est un enjeu important pour notre commune, et le déploiement et la rénovation des réseaux constituent une charge pour NUMERICABLE.

Pour favoriser la réduction des coûts, les responsabilités doivent être réparties clairement, la maîtrise d'ouvrage étant assurée par la COLLECTIVITE pour les infrastructures communes de génie civil, et par NUMERICABLE s'agissant des travaux de câblage, il s'agit de conclure une convention qui aura pour objet d'organiser les relations entre les Parties pour la mise en œuvre des dispositions de l'article L.2224-35 du code général des collectivités territoriales.

**\* Monsieur Vinet : Qu'ont-ils accepté ?**

**\* Monsieur Goyheneche : Ils ont utilisé des foyers déjà en place et participeront financièrement. Leur nouveau règlement a été présenté. Nous avons vu aussi de nouveaux interlocuteurs, plus ouverts. Les rencontres ont été positives et on pense arriver à la fin de ce litige dans des conditions intéressantes pour la commune.**

**\* Monsieur Vinet : Cela concerne l'ensemble des infrastructures communales ?**

**\* Monsieur Goyheneche : Cela concerne le chantier de la rue du jeu de paume et antonibaita à hiribehere qui faisaient l'objet de blocage. Ils ont annoncé l'arrivée de la fibre en 2018 sur la commune. Nous disposerons donc d'une rapidité de transmission améliorée.**

**\* Monsieur Vinet : As-t-on eu des contacts par rapport à la RTTHB et notamment qui prévoit une extension et une mise à disposition du très haut débit partout ?**

**\* Monsieur Goyheneche : Le département annonce la fin du déploiement de la fibre en 2025. Numéricable a par ailleurs annoncé son implantation sur Ustaritz pour fin 2018 et permettra peut-être de résoudre les problèmes de zones blanches.**

Le Conseil Municipal à l'unanimité,

- **AUTORISE** la conclusion d'une convention cadre avec NUMERICABLE pour la gestion de son réseau ;  
- **AUTORISE** le Maire à signer tous documents afférents à cet accord.

**\* FINANCES - ACTION ÉCONOMIQUE - RESSOURCES HUMAINES**

**6. DEBAT D'ORIENTATION BUDGETAIRE 2017.**

ingeniaritzako azpiegituren kasuan, eta NUMERICABLE-k kablea emate lanetan; hitzarmen bat sinatu behar dugu, Lurralde Kolektibitateen Kode Nagusiaren L.2224-35 artikulua agintzen dituenak gauzatzeko aldeek elkarrekin dituzten harremanak antola ditzan.

Bestalde, antolatuko da NUMERICABLE-rekin pilotalekuaren karrikako eta Antonibaita sektoreetan egiteko geratu diren operazioei dagokienerako hitzarmen bereziak sinatzea ere; horrela, egiteko diren lanak egiten ahalko dira eta haien diruztapena zehaztuko da ere.

**\* Vinet jauna : Zer onartu dute ?**

**\* Goyheneche jauna : Tokian diren hodiak baliatuko dituzte eta diruztatze mailan parte hartuko dute. Beren araudi berria aurkeztua izan da. Ikusi ditugu ere idekidura gehiagorekilako solaskideak. Elkarretaratzeak baikorrak izan dira eta pentsatzen dugu eztabaida horren hesteak baldintza interesgarriak eskainiko dituela herriarentzat.**

**\* Vinet jauna : Herriko azpiegitura guztiak hunkituak dira ?**

**\* Goyheneche jauna : Plaza laxoko karrikako obretaz ari gira eta blokatua zen hiribeheren den antonibaita. Herrian, 2018an ukanen dugula zuntza errana dute. Hedatze azkartua ukanen dugu.**

**\* Vinet jauna : RTTHBari buruz ukan ote ditugu kontaktuak eta bereziki denen esku litzatekeen banda zabala eremu guzietan ezartzeko aurreikusia ote da ?**

**\* Goyheneche jauna : Departamenduak jakinarazten du zuntzaren hedatzea 2025eko bukatua izanen dela. Bestalde Numericalbe-ek jakinarazi du zuntzaren instalatzea Uztaritzen 2018ko bukatua izanen zuela.**

Herri Biltzarrak aho batez,

- **BAIMENA EMAN DU** oinarri hitzarmen bat sina dadin NUMERICABLE-rekin sarearen kudeaketarako;  
- **BAIMENA EMAN DIO** auzapezari akordio horiei lotu dokumentu oro sina dezan.

**\* FINANTZAK – EKINTZA EKONOMIKOA – GIZA BALIABIDEAK**

**6. 2017KO AITZINKONTUAREN XEDERAPENARI BURUZKO EZTABAIDA**

Drieux Jaunak ondoko txostena aurkezten du,

Auzkeztuak zaizkizuen 2017 aitzinkontu orientazioak, defizit publikoaren murrizketaren segitzeko egoera ekonomikoa daude.

Duela zenbait urtedanik kolektibitateei eskatua zitzaien ahaleginak aitzina segitzen du. Funtzionamendu Dotazio



Monsieur Drieux présente le rapport suivant,

Les orientations budgétaires 2017 qui vous sont présentées se situent dans un contexte économique de poursuite de réduction des déficits publics.

L'effort demandé depuis plusieurs années aux collectivités est maintenu. La Dotation Globale de Fonctionnement (DGF) baisse une nouvelle fois de 2.36 milliards d'euros. C'est la dernière tranche de contribution au redressement des finances publiques.

Un retour de l'inflation en raison de la remontée des cours du pétrole est à attendre aux alentours de 1.40%. Quant à la croissance, elle devrait atteindre 1.20% en 2017.

Au niveau des marchés bancaires, il faut noter le maintien de taux d'emprunts toujours très bas. Les perspectives restent stables avec une possible poussée pour les taux obligataires en 2017.

Le budget communal 2017 en fonctionnement demeure tendu. Aux contraintes évoquées plus haut, viennent s'ajouter :

- une nouvelle baisse de la Dotation Globale de Fonctionnement de 96 709 € pour la commune d'Ustaritz (Le manque de recette pour 2017 s'évalue à 329 343€).

- la participation communale de 3% au financement des logements sociaux (173 000 € en 2017), ainsi que la pénalité loi SRU estimée à 57 000 €.

- la baisse des revenus d'immeubles de 42 000€ liée au prochain départ de la gendarmerie des bâtiments communaux.

#### **CONCERNANT LE FONCTIONNEMENT :**

Le budget de fonctionnement en cette année 2017 sera un budget serré. Il a été demandé à tous les services de maintenir l'effort consenti en 2016.

Les actions de maîtrise des dépenses menées au cours de l'année 2016 continueront à porter leurs fruits.

Le poste charges à caractère général chute sensiblement de 1 293 170 € à 1 161 473 €. En effet, plusieurs charges liées au fonctionnement de la piscine (énergie et entretien) disparaissent.

Les charges de personnel sont en baisse (- 132 744€).

- Le transfert de 7 salariés sur huit de la piscine est la principale origine de cette baisse.
- Au cours de l'année 2017, deux contrats CAE seront pérennisés, un nouveau sera contracté. Des améliorations au niveau de l'organisation générale commencent à porter leurs fruits et nous gagnons en efficacité.

Les intérêts d'emprunts vont chuter notamment au niveau des

Orokoarra (FDO) 2,36 miliar euroz jausten da oraino ere. Finantza publikoen altzarazteko azken ekarpen txanda da.

Petrolio prezioaren emendatzeari lotua den %1,40 inguruko diru hantze bat gerta laiteke. Hazkunderari dagokionez, %1,20etara hel daiteke 2017an

Banku merkatueri dagokienez, oraindikan apal dirauen mailegu tasa, ohargarria da. Menturak egonkorak dira, baldintzazko obligatario tasa emendatze batekin 2017an.

2017ko herriko funtzionamendu aitzinkontua tinki dirau. Gorago aipatu betebeharrei, emendatzen zitzaie :

- 96 709 € ko Funtzionamendurako Dotazioen Orokorren apaltze berri bat Uztaritze herriarentzat (2017rako irabazi eskasa 329 343€ heinekoa da).

- Gizarte aloimenduaren aldeko herriko etxearen %3ko diruztatze parte hartzea (173 000 € 2017an), bai eta 57 000€ heinekoa den SRU legearen zigorra.

-Herriko eraikinetatik jendarmeriaren hurrengo joatearen ondoriozko 42 000€ko eraikin irabazien apalketa.

#### **FUNTZIONAMENDUARI DAGOKIONEZ :**

2017 urte honetako funtzionamendu aitzinkontua arras tinkia izanen da. Zerbitzu guzietan eskatua izan zitzaie 2016tzat onetsi zuten indar bera irautaz dezaten..

2016 urte osoan zehar iragan diren xahuketen menperatze ekintzek beren fruitu onak erakarriko dizkigute.

Izaera orokorreko kargu postua doi batez apaltzen da, 1 293 170 €tik 1 161 473 €etara pasatuz. Alabaina, igerilekuari lotuak zitzaizkien kargu andana bat desagertu dira (energia eta mantenua).

Langilego karguak apal aire dirade (-132 744€)

- Apalketa horri erantzule zitzaio igerilekuko 7 langileen transferitza.
- 2017 urtean zehar, bi CAE lan kontratu iraunduak izanen dira, beste bat kontratatua izanen da. Antolakuntza orokorrari lotuak diren hobekuntzek beren saria ekartzen hasten dira eta erakingortasun gehiago daukagu..

Mailegu interesak jautsiko dira, bereziki EPE LABURREKO maileguenak. 500 000€ko diru itzultze bat gertatu behar luke 2017 urtean zehar. 3 150 000€ hartutako mailegutik 474 325€ko zor bat geldituko da (lehengo herriko taldearenganiko 2014ko 2,150 M€ko zorra barne) ETXEPAREA kirol zelaiaren inbertsioarentzat, eta delako dirutzak 2018rainoko epemuga zerrenda bat iragaten du CREDIT MUTUEL bankuan.

#### **Diru sartzetan :**

Funtzionamendu diru sartzeek, aipatuak izan ziren

